



Jesus Zaballos da alkate berria.- Larunbatean egin zen udal berria osatzeko udalbatzarra. Zinegotziek euren akta hartu zuten eta alkatea aukeratzeko garaian, babes gehiena lortu zuen PSE-EEko Jesus Zaballosek, bere taldeko zazpi bozkak eskuratuta. Horrela izanda Jesus Zaballos izango da datozen lau urteetan alkate. Udalaren osaketari dagokionez, PSE-EEko Jesus Zaballos, Lourdes Acevedo, Agustin Valdivia, Maite Iglesias, Txus Alonso, Beatriz Juez eta Jose Mari Urdampilleta. EHBilduko, Pablo Barrio, Leire Elizegi, Gorra Lizarraga eta Kris Bernal izango dira zinegotzi. Lasarte-Oriak Ahal du hautesle taldearen izenean Udalbatzarrean lanean izango dira Arkaitz Naya, David Ares eta Alicia Garcia. EAJ-PNVk bi kide izango ditu korporazioan, Estitxu Alkorta eta Jon Antxordoki eta azkenik, lehenengo legealdia izango da PPko Alex Saenz gaztearentzat.

4 DANTZA Kukukaren antzerki eta dantza astearen amaiera

Atzoko Dantzaz Blai! egunarekin bukatu zen Kukukaren antzerki eta dantza astearen 13. edizioa. Euskal dantza, euskal dantza sorkuntza eta dantza garaikideko ikasleek eskaini zituzten emanaldiak goiz eta arratsaldean. Haur, gazte eta helduek ikasturtean lan asko egin dutela erakutsi zuten.



5 ELKARRIZKETA Txaranga herrikoia eratzeko lehenengo urratsak

Gurean txarangarik ez dagoela konturatuta, herritar talde bat elkartu da txaranga herrikoia bat osatzeko. Entseguak hasita dituzte baina musikak instrumentuak jotzen dituzten herritarrei dei egiten diete ekimenean parte hartzera. Asmoa San Pedro jaietan lehenengo ateratzea da.

**Ostiralean,
ekainaren
19an,
ez da
TXINTXARRI-rik
argitaratuko.
Herriko
informazio
guztia
txintxarri.eus**



ZURE BIGARREN
LEIAR PROGRESIBOAK
OPARI
VARILUX

ERABATEKO BABESA

www.multiopticasgipuzkoa.com

Kontsulta itzazu zure optikan kanpainaren ezaugarriak.

Kale Nagusia, 15
Tel.: 943 37 74 55
LASARTE

MULTIOPTICAS
lehena zerbitzu optikoetan

POLITIKA

Legealdi berriari hasiera eman zaio

Alkaterekin batera, udalbatzar berria osatu zen larunbatean

Jesus Zaballosek lasarteoriatar guztien alkate izango dela azpimarratu zuen bere diskurtsoan. Lan ildo nagusiak gizarte zerbitzuak indartzea eta kirol instalazioak hobetzea izango direla aipatu zuen besteak beste. Modu gardenean gobernatuko duela esan zuen eta herritarrentzako zabalik izango duela bere bulegoa asteen bi egunetan. Eusko Jaurlaritzan aurki bere parlamentari aulkia utziko duela ere iragarri zuen.

Goizeko bederatzietan puntuan Xabier Egea udaleko idazkariak eman zion hasiera Udabatzarriari eta ez zen ezustekorik izan. PSE-EE izan zen maiatzaren 24ean alderdi bozkatuena herrian eta horrela izanda, Jesus Zaballos izango da datorren lau urteetan alkatea.

Lehenik eta behin zinegotzi akta zin egin behar izan zuten udal gobernu berriko kideek. Horretarako zinegotzi helduena, PSE-EEko Jose Mari Urdampilleta, eta gazteenarekin osatu zen mahaia, PPko Alejandro Saenzekin.

Banan-bana zinegotzi akta hartzen joan ziren. Ondoren, hautagaitzen ordua izan zen. PSE-EEko Jesus Zaballosek bere burua aurkeztu zuen baita EHBilduko Pablo Barriok ere. Zinegotziek bozka eman eta kontaketa hasi behar zela, Ricardo Izagirre herritarren aldarriak eten egin zuen plenoa.

Etena

Izagirrek defendatzen du

herriaren izena Lasarte bakkirik izan behar duela eta mezu hau zeukan pankarta zabaldu zuen. Berarekin hitz egin eta plenoa uzteko eskarari ezetza eman zionez, idazkariak udaltzainak deitu zituen. Minutu batzuen buruan atera zuten herritarra pleno aretotik.

Jarraian bozkaketan, bozka bat izan zuen PPko Alejandro Saenzek, bi bozka txuri, hiru Lasarte-Oriak Ahal Du-ko Arkaitz Nayarentzat, lau bozka Pablo Barriorentzat eta zazpi bozka izan ziren Jesus Zaballosentzat.

Idazkariak, PSE-EEko Jesus Zaballos izendatu zuen alkate eta honi eman zion aginte makila.

Zaballosek eskerrak eman zizkien beregan konfiantza jarri duten herritarrei baita herriko talde sozialistari ere. "Agintaldi honetan lasarteriatar guztien alkate izango naiz, denentzat gobernatuko dut" esan zuen. Horrekin batera lan ildo nagusiak aipatu zituen "krisi ekonomioa



PSE-EEko Jesus Zaballos aginte makila jasotzerakoan.

gogor pairatu duten herritarrek laguntzeko, gizarte zerbitzuak indartzea izango da lehentasuna, laguntzak handituz elkartasun eta justizia soziala bermatzeko". "Ezin dugu udal gobernu bat izan gure bizitzaren kalitate hobe bat lortzeko beharrezkoak diren esku-hartzeak ahazten dituen".

"Herrian eskasak eta zaharkituak geratu diren kirol instalazioak hobetzeko lan egingo dugu". "Hezkuntza hoberena bermatu behar da herriko eskoletan eta horretarako instalazio egokiak izan behar dituzte".

Gardentasunez gobernatzeko "konpomisoa hartzen dut" eta beste neurri batzuren artean, alderdi guztiei jokaera kode etiko bat sinatzea pro-

posatuko die baita asteen bitan alkatearen bulegoa herritarrentzat zabalik izango dela aipatu zuen. Beste alderdiekin akordioetara iristen saiatuko dela adierazi zuen ere Zaballosek.

Alkate berriak bere diskurtsoa nagusiki gazteleraz egin zuen euskaraz zati batzuk irakurrita.

Oposizioan

Azken lau urteetan alkate izan den Pablo Barriok, "hasitako bideari oposiziotik jarraipena emango diogu" adierazi zuen ekitaldiaren ostean. "Duela lau urte aldaketa eman zen, kudeaketa modu aldatu eta herrian ilusio bat, beste giro alaiago bat egon dela iruditzen zaigu eta horretaz oso harro gaude.

Aurrera begira horretan jarraituko dugu lanean". Zaballosek diskurtsoan gizarte zerbitzuak indartzearen beharra azpimarratu du eta alkate ohiari "azken urteetan aurrerapen handiak egin direla iruditzen zaigu baina bide horretan jarraitu nahi badute, alboan izango gaituzte" gainerakoan EHBilduko zinegotzien asmoa, lana eta oposizio arduratsua egitea dela esan zuen.

Esparru pertsonalean, berarentzat beste fase bat hasten dela aitortu zuen, "pena ematen dit alkatetzan hasitako bideari jarraipena ez ematea baina aldi berean, alkate izateagatik bazterrean utzitako zenbait gauza berri hartzeko garaia dut eta pozik nago".




Pleno aretora herritar asko gerturatu zen bertatik bertara udalaren osaketa ikusteko.



Ricardo Izagirre herritarrek bere aldarrikapenak larunbateko plenora eraman zituen.

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



LASARTE-ORIA
UDALA

Txintxarri ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Laguntzailea



Argitaratzailea:

Ttakun Kultur Elkartea
Geltoki kalea 4
20160 Lasarte-Oria
943 366 858/943 371 448
G-20407557
Legezko gordailua:
SS513/93
ISSN: 1134-0053
Inprimategia
Zeroa Multimedia, S.A.
Aleak zenbakiko: 7.800

txintxarri

Erredakzioa:

Maidar Azurmendi, Iñigo Gonzalez, Nerea Eizagirre
txintxarri@txintxarri.info
Publizitatea eta administrazioa:
Arantza Artola
publizitatea@ttakun.com
administrazioa@ttakun.com
Laguntzaileak:
Unai Muñoa, Gorka Lasa, Ane Labaka, Mailu Arruti, Asier Odriozola, Maider Seguro, Jexux Artetxe, Gorka Alvarez, Pako Aizpitarte, Edu Galardi
Informatikoa:
Xabier Amadoz

KULTURA

Palestinaren aldeko bideoa

Herriko hainbat eragilek hartu dute parte bertan



Euren burua eta lasarteoriatarrekin batera egindako bideoa aurkeztu zituen Lasarte-Oriako Palestinaren lagunak taldeak.

Iazko udan sortu zen Lasarte-Oriako Palestinaren lagunak taldea, Gazako (Palestina) hiritarrek pairatutako sarraskiaren ostean. Bideo bat grabatu dute Lasarte-Oriako hainbat herritar, elkarte eta eragilerekin batera, Palestinarekiko elkartasuna adieraziz.

TXINTXARRI

Joan den asteazkenean aurkeztu zuen bere burua, baina askoz lehenagotik ari da lanean Lasarte-Oriako Palestinaren lagunak taldea. Herritar talde batek elkartzea erabaki zuen joan den urteko udan; Gazan gertatzen ari ziren sarraskiak salatzeke elkarretarazteetara joan ziren lasarteoriatar batzuen izan zen ideia.

Elkartu zirenetik egin ditu hainbat ekintza herritar talde horrek. Elkartasun afariak, esaterako. Horietan bildutako diruarekin baratzak egin ahal izan dituzte Gazako eremuan, gerrateek utzitako hondakinen artean.

Herritarrekin elkarlanean

Joan den asteazkenean aurkeztu zuen taldeak azkenengo ekintza: Bideo bat grabatu du, herriko hainbat elkarte eta

eragilerekin batera. Israeli boikota egiteko eskatzen dute bertan hainbat lasarteoriatarrek. Bideoa amaitu ostean, taldeko kideek eskerrak eman zizkieten beraiekin batera bideoa egiten parte hartu duten guztiei.

Ondoren, dokumentala

Bideoa ikusi ostean, Unai Aranzadi kazetariak zuzendutako 'Y sin embargo, Al Quds' izeneko dokumentala ikusi zuten Kultur etxeko hitzaldi aretora bertaratu zirenek. Jerusalem ekialdean bizi diren hainbat palestinaren egunero bizitza erakusten du ordu erdiko dokumentalak, haien testigantzen bidez.

Bidegorria inauguratu da

Lasarte-Oriako herritar talde batek sustatuta, larubat goizean herria Donostiarekin lotzen duen bidegorriaren irekiera ofiziala egin zen.

Euskotreneko geltokian elkartu eta herritar batzuk bizikletaz eta beste batzuk oinez, bidegorri berria zeharkatzera abiatu ziren. Errekaldara iritsita, zinta jarri eta inaugurazio ororen antzera, hau moztu zuten. Sagardo trago bat egin eta jai giroan gogoratu nahi izan zuten ekimenaren sustatzaileek aspaldiko aldarrikapena zela bidegorri zati hau. Izan ere, kilometroko bidea egiteko asko izan da itxaron beharreko denbora.

Honekin batera Lasarte-Oriak inguruko beste herriekin loturak behar dituela ere gogoratu nahi izan zuten.



Adin guztietako herritarrek parte hartu zuten larunbateko ekimenean.

JAIK

Zikero afarirako txartelak salgai

San Pedroetan jende asko biltzen duen hitzordua izan ohi da Zikero afaria. Aurten ostiralean, ekainaren 26an izango da 22:00etan Okendon. Afari hau Ttakun elkarteak antolatzen du eta aurrez txartelak erosi behar dira. Dagoeneko Ttakunen eta Jalgin daude eskuragarri. Afariaren prezioa 20 eurokoa izango da eta ohiko menua dastatuko dute parte hartzaileek, entsalada, zikeroa, postre gozoa, edaria eta kafea barne. Antolatzaileek txartelak ahalik eta lasterren erostea gomendatzen dute.

IRTEERA

Labennera irteera

Ttakunek Labenne eta Arcachonera irteerak antolatu ditu ekainaren 22 eta 23rako. 22an Labennera joarteko aukera izango dute Amaraun kluba eta Gazte Klubekoek, hau da, 2005, 2006 eta 2007 jaiotakoek. Labennera 10:00etan abiatuko dira hipodromoko zubitik eta itzulera 19:00etan egingo dute. Bazkaria, merienda, txankletak, bainujantzia, toaila, krema eta osasun txartel europarra eraman beharko dute. Izena emateko garaian, Udaletxean eskatzen den muga pasatzeko baimena eraman beharko da Ttakunera umearen NAN fotokopiarrekin batera. Labennera irteeraren kostua 33 eurokoa da eta Ttakuneko bazkideentzat 30 eurokoa.

IKASTAROA

Elikagaien alergiak eta intolerantziak

Elkolab enpresak, Lasarte-Oriako Udalaren osasun departamentuarekin elkarlanean, ikastaro berri bat eskainiko du gurean. Honakoa elikagaien alergiak eta intolerantzien ingurukoa izango da eta zehazki, alergenoen kudeaketari buruz elikagai enpresetan. %100 subentzionauteko ikastaroa da langabetuentzako eta elikagai industriako langileentzako. Ikastaroa ekainaren 29an, eta uztailaren 8 eta 13an emango da Anbulatorioko bigarren solairuko erabilera anitzeko aretoan. Orduetgia 13:00etik 16:20ra bitartekoa izango da. Informazio gehiago jasotzeko edo izena emateko, Elkolab-era deitu beharko dute interesatuek, 943 53 33 03 telefonoan.

ZOZKETA

Zabaletako jaietako zenbaki saritua

Zabaletako jaietan Goiegi jatetxean lau afari zozketatu ziren. Zenbaki irabazlea 3395 da. Onuradunak hilabete bat du saria eskuratzeko. Jai batzordeko kideekin harremanetan jarri behar da, 943 37 04 33 edo 943 37 05 66 zenbakietan.

Euskara ikasleek beka eskatzeko aukera orain

2014-15 ikasturtean euskara ikasten aritu diren herritarrek matrikulaprezioaren %85 arteko beka jaso dezakete Udaletik. Ikastaroa bukatu eta hurrengo hamabost egunen barruan aurkeztu beharko du interesatuak eskaera.

Iaz Udalak onetsitako irizpide berriari jarraituz, Udaleko Euskara Batzordeak %85a arteko beka eskainiko ditu. Eskaintza berri horri erantzuteko 50.000 eurora arte handitu du aurten Udalak.

Baldintzak

Beka jasotzeko, Lasarte-Oriako erroldatua egon behar da eta egindako ikastaroan gutxienez % 85eko asistentzia bete behar da.

Diruz lagunduko diren ikastaroak hauek dira: euskaltegiko ikasturtean zeharre-



ko ikastaroa, gutxienez 80 ordukoa (autoikaskuntzakoak ere bai), barnetegia, gutxienez hilabete segidan baldin bada, eta, udako ikastaroak, ikasturtean zehar aurreko ikastarotara horetako bat egin duten ikasleentzat kasuan.

Informazio gehiago udalaren web-orrian edo euskara zerbitzuan 943 37 61 84 zenbakian eskura daiteke.



Azken antzerki emanaldia ostiralekoa izan zen, helduen taldearen 'Egunero ringing!'.



Goizean euskal dantza eta euskal dantza sorkuntzako ikasleen txanda izan zen eta arratsaldean dantza garaikidekoena.

Dantzarekin amaiera

Kukukaren antzerki eta dantza astea bukatu da

Atzoko dantza emanaldiekin amaiera eman zioten Kukukakoek antzerki eta dantza asteari. Azkeneko antzerki saioa helduen taldeak eskaini zuen ostiralean eta euskal dantza, euskal dantza sorkuntza eta dantza garaikideko ikasleek atzoko saioetan erakutsi zuten ikasitako guztia.

TXINTXARRI

Antzerki eta dantza astea atzoko Dantzaz Blai! egunerakin agurtu zen. Kukukako kideek ikasurtean zehar ikasitakoa erakusteko baliatzen dituzte bi aste eta aurten ere lan politak erakutsi dituzte Manuel Lekuonako oholtzan.

Ostiralean iluntzean, helduen taldeak 'Egunero ringing!' lana oholtzaratu zuten. Egunerokoan mugikorrarekiko dugun lotura umorez landu zuten musika maixuki baliatuz. Jende asko gerturatu zen azken antzezlan hau ikustera eta aktoreak txalo zaparrada luzearekin saritu zituzten amaieran.

Igandea berriz, dantzaren eguna bilakatu zen. Eskolako dantza talde ezberdinek euren erakustaldia egin zuten bi saio ezberdinetan. Goizean euskal dantza eta euskal dantza sorkuntzako taldeen emanaldia izan zen eta arratsaldean berriz, dantza garaikideko ikasleena.

Txiki, gazte eta helduek maila altuko dantza erakustaldiak eskaini zituzten Manuel Lekuona lepo bete zuten herritarren aurrean.

Horrela amaiera borobila eman zioten antzerki eta dantza emanaldiz betetako hamabostaldi bereziari.

Txaldatxurreko lubakietara irteera larunbatean

Islada Ezkutatuak taldeak Txaldatxurko gaina eta bertan egin duten lana ezagutzeko aukera emango die herritarrei ekainaren 20an, larunbatean.

Oroimen historikoaren aldeko taldeak irteera antolatuko du. Hitzordua goizeko 9:00etan Okendoko plazan da.

Garbiketa

Islada Ezkutatuak taldea oroimen historikoa bildu eta argitarara ateratzeko hainbat lan egiten ari da, hauetako bat arkitektura aztarnen bilaketa da.

1936ko gerra bizi zuten herritarren testigantzak jasotzen hasi eta Andatza mend inguruan lubaki bat zegoela jakin zuen taldeak.

Usurbilgo herritarrei esker jakin zuten kokapen zehatza, Zubietamendiko Txaldatxur mendixka eta 2013 urteaz

geroztik, auzolanean eremu horretan ari da indusketa lanetan.

Honi esker, lubakiak ikusgai jarri eta Gerra Zibileko armamentua eta beste hainbat objektu aurkitu zituzten.

Esate baterako, 2014ko martxoan esku granada eta irailean lehertu gabeko artilleriako proiektil bat aurkitu zituen taldeak eremuan. Bi kasuetan Ertzaintzari parte eman eta honek era kontrolatuan leherrarazi zituen.

Historia

Aurkikuntzak egin eta talde lanean hasi zen bertan gertatutakoa ezagutzeko. Honela, ahozko informazioa, garaiko prentsa, artxiboak eta bibliografiak aztertu ostean, Txaldatxur 1936ko abuztutik aurrera borroka gune bilakatu zela jakin du taldeak.

Errepublikarrek bertan defentsa lubaki eta tiratzaile



Islada Ezkutatuak taldeko lagunek lubaki eta tiratzaile hobiak aurkitu dituzte Txaldatxurren.

ISLADA EZKUTATUAK

hobiak antolatu zituzten eta posizio hauek 1936ko irailean Cayuela Teniente Coronelaren tropek.

Bisita

Taldeak orain arte ez du lekua erakutsi izan zitekeen arriskuagatik.

Larunbateko bisitan aldiz, lubaki eta tiratzaile hobiak erakutsi eta aurkitutako materiala azalduko diete Islada Ezkutatuak taldeko lagunek herritarrei.

Era berean, bertan gertatu ahal izan zenaren errelatoa egingo dute.

Hau guztiaz gain, interesa duten herritarrei gonbita egiten die taldeak Txaldatxurren indusketa eta garbiketa lanetan parte hartzera.

Taldeko kideek aipatu digutenez, eguraldi txarra eginenez gero, momentuan erabakiko da zer egin.

Iñaki Izquierdo, Aitor Izagirre, Imanol Jimenez eta Iñigo Bobillo Musikariak

"Txaranga herrikoia osatu nahi dugu"

San Pedro jaietan ateratzeko entsaiatzen ari dira astelehen eta ostiraletan

Lasarte-Orian txarangarik ez dagoela konturatuta herritar talde bat biltzen hasi da hau osatzeko lehenengo urratsak emanez. Txaranga herrikoia da nahi dutena, "ondo pasatzeko" helburuarekin. Azaltzen dutenez, ez dute herriz herri ateratzeko asmorik, gure herriko festa eta jaietan kalea girotzen izan eta ondo pasatzea besterik ez dute nahi hasieran. Herritarrei deialdia egin nahi diete taldean parte hartzeko.

MAIDER AZURMENDI

Aitor Izagirre, Imanol Jimenez, Iñigo Bobillo eta Iñaki Izquierdo dira txaranga herrikoia osatzeko egitasmoan sortzaile eta parte hartzaileetako batzuk.

Buruan zuten ideia gertukoekin hitz egin, eta momentu honetan hamar bat lagun elkartu dira. Amaia Atzegaren zuzendaritzapean, entseguak burutzen ari dira San Pedroetan lehenengoz kalez kale ateratzeko. Modu amateurrean ari direla diote, ikasten, baina gogotsu. Dagoeneko sei bat pieza prestatu dituzte baina herritarrak animatu nahi dituzte txaranga honetan parte hartzera. Herrian txarangarik ez dagoela eta, musika zaletasuna eta irteera sustatzeko gazte zein helduen artean.

Nola bururatu zitzaizuen txaranga sortzearena?

Ni neu, (Iñaki), Imanol eta Zigor Iriondo Usurbilgo musika eskolan saxofoia ikasten ari gara.

Dagoeneko hirugarren eta laugarren urtea dugu bertan eta iruditu zitzaigun zerbait egin behar genuela. Saxofoia jotzen ikasteaz gain, gozatu nahi genuen beste instrumentu batzuekin jo eta jai giroan.

Horretarako irteera errazena, txaranga muntatzea zela iruditu zitzaigun eta hala hasi ginen. Ideia aspalditik buruan darabilgun arren, bi edo hiru hilabete daramatzaugu serio entsaiatzen.

Herrian ez dago txaranga-rik...

Hori da, gure herrian ez dago horrelako ezer, herriko musika eskolatik gazteak ateratzen dira instrumentuak jotzen baina ez dute beste aukerarik. Gure txarangarekin, nolabait irteera bat eman nahi diogu herrian badagoen zaletasun horri.

Planteamendua da txaranga herrikoia bat sortzea eta bertan nahi duen orok parte hartzeko aukera izatea. Edozein adinetako lagunak, momentuan 16 urteko kide

bat dago eta zaharrenak 60 urte ditu...

Orain asko entsaiatzen ari gara San Pedroetan ateratzeko helburua jarri dugulako, lehenengo aldiz aterako gara kalera gure doinuekin.

Ez dugu guztiz zehaztu baina bi egunetan ateratzea pentsatzen ari gara, poteoa girotzeko ziurrenik.

Zenbat lagun zaudeten momentu honetan?

Hamar bat gaude baina deialdi bat egin nahi dugu txaranga integratzeko moduko instrumentuak jotzen dituzten herritarrak parte hartzera animatzeko.

San Pedroetan ateratzeko asmoa dugunez, datozen asteetan astelehen eta ostiraleroko 18:30ean Ttakuneko lokalean, liburutegi zaharrean, elkartzen ari gara eta interesa izan dezaketen herritarrei bertara gertatzeko gonbita luzatzen diegu.

Sei bat pieza ditugu jotzeko moduan, lana dugu oraindik baina tira.

Lagun artean hasi zarete?

Bai gertuko jendeari esan genion eta batez ere profesionalak ez direnei.

Gure artean badaude esperientzia dutenak ere baina gure mailaz ohartuta, zaletuak bilatu ditugu hasiera batean. Ahal duguna jotzen dugu guk eta agian, profesionalak pazientzia galduko lukete gure erritmora entsaiatuta.

Ondo jotzen jakin behar al da?

Ez, esan bezala, gu ikasleak gara gehienak. Modu amateurrean ari gara, edozein maila duten musikariak ogi etorriak izango dira. Elkarrekin ikasten ari garela esan daiteke, instrumentu ezberdinekin jotzen dugun lehenengo aldia da askorentzat eta zorionez, Amaia Atxega musikaria dugu irakasle. Bera da zuzendaria, partiturretako arregioak egiten dituen eta.

Herriz herri jaiak girotzen



Entseguak egingo dituzte astelehen eta ostiral guztietan San Pedro jaiak bitarte.

ibiltzeko asmoa duzue?

Hasiera batean ez da gure asmoa.

Ez dugu txaranga profesional bat osatu nahi, ez dugu herriz herri ibiltzeko intentziorik. Hala ere, egia da egitasmo honen lehenengo urratsetan gaudela eta nork daki. Oso argi dugu, musika eskolatik ateratzen diren gazteei irtenbide bat eskaini nahi diegula eta nork daki gerora zer gertatuko den.

Herriko festetan, inauterietan, Santa Anan... ondo pasa nahi dugu momentuz. Nahikoa saltsetan gaude berez eta ez dugu konpromisoa hartu nahi ere ez astebururo batetik bestera ibiltzekoa.

Azpimarratu nahi dugu, gazte askok musika eskolan maila ona lortzen dutela eta gero ez dutela aukera ikasitako horrekin ondo pasatzeko. Guk aukera hori eman nahi dugu. Auskalo, agian jazz band bat sortzen da edota banda bat... Hasieran behintzat txaranga.

Egon al da herrian txarangarik?

Esan behar da herrian musika tradizioa izan dela. Akordeoiaren esparruan esaterako, izugarritzko lana egin da eta hortxe daude bi talde.

Garai batean errondaila

"Jende gazteari irtenbide bat eman nahi diogu. Musika eskola amaituta, instrumentua jotzen jarraitzeko aitzakia eman"

bazegoen. Txaranga ere egon zen duela urte pila Chicarron izeneko bat. Bruneten, Orian ere beste txaranga bat zegoen. Kultura musikala izugarria zen garai batean baina gerora galdu egin da. Badakigu ere zenbait lasarteoriatar daudela beste herrietako txarangetan parte hartzen.

Gipuzkoako 35 herri handienek banda dute Lasarte-Oria kenduta, 2.000 biztanleko herriak dira asko. Harritzekoa da hemen aurretik inork ez aipatzea. Inoiz ez da egon sortzeko proiekturik ez ezer.

Jendeak ze harrera egin dio ekimenari?

Ba orokorrean ideia ona iruditzen zaie eta animatu gaituzte aurrera egitea.

Horrelako zerbaitetan lehenengo aldia al da?

Aitorrek esperientzia du, Zero Setten ibilitako musikariak badaude. Hala ere, herrian batean edo bestean ibilitakoak gara.

Dantzan, parodian, auzo elkarteetan... urteak daramatzaugu herriko ekimenetan parte hartzen modu batera edo bestera. Txarangarena beste ekarpen bat gehiago da.

Ikasturteari dagokionez, zein maiztasunekin elkartuko zarete?

Ez dugu oraindik ezer finkatu, baina jendearen gogoaren arabera moldatuko gara.

Entsaiatzen noski jarraituko dugu eta beharren arabera saio gehiago edo gutxiago egingo ditugu.

Hala ere, txarangak jarraitzea nahi dugu, konpromiso serioa dugu martxan jarritako ekimenarekin.

Herritarrak animatu nahi ditugu parte hartzera, zalan-tzak badituzte entsegu batera gerturatu daitezke eta bestela, 665 72 39 67 telefonora dei dezakete gurekin harremanetan jartzeko. Ekimen polita eta gustagarria dela iruditzen zaigu beraz espero dugu animatzea.

IGERIKETA.-

Buruntzaldea IKTko igerilariak bikain etxean

Lasarte sariaren XXVI. edizioa eta I. erronka jokatu ziren larunbatean

Lasarteko XXVI. saria eta I. erronka jokatu ziren larunbatean herriko igerilekuan. Buruntzaldea IKTko kideek lan txukuna egin zuten lagun eta gurasoen begiradapean. Txapelketa hasi aurretik estiloak ataleko haurren erakustaldiaz ere gozatu ahal izan zuten bertaratutakoek.

TXINTXARRI

Igerileketaren festa bilakatu zen urtero bezala Lasarte sariaren XXVI. edizioa. Honekin Buruntzaldea IKTko benjamin eta alebinek denboraldiari amaiera eman zioten eta infantil, junior eta absolutuek denboraldiari jarraipena. Lehia hasi aurretik, estiloak ataleko haurrek erakustaldi polita eskaini zuten.


Ostean hasi zen lehiaketa. Benjamin eta alebinetan, herritarrekin batera, Hernani, Donostia, Andoain, Tolosa, Oiartzun, Legazpi eta Ordiziako igerilariak aritu ziren. Tximeleta 25 metro eta 100 metro, bizkar, braza eta librean 50 metro eta 100 metroko serieak igeri egin behar izan zituzten.

Gaztetxoek emaitza onak lortu zituzten eta euren marka pertsonalak ere hobetu zituzten.

Eguerdian hasi zen infantil, junior eta absolutuen txapelketa.

Erronka izena jarri zaio aurten txapelketaren zati honi, estiloak, bizkar, libre, braza eta tximeleta estiloetan aritu behar izan ziren distantzia ezberdinak osatuz 50m, 100m, 200m, 400m eta estilo librean 2.000m-ko proba ere gaudituz behar izan zuten batzuek. Kasu honetan proba guztiak mixtoak izan ziren aurrekoan ez bezala. Maila hauetan Ireña, Gasteiz, Legazpi, Zarautz eta Tolosatik etorri ziren taldeak lehiatzen.

Buruntzaldea IKTko kideek lehenengo postuak erdietsi zituzten hainbat pro-



I. erronkan ederki moldatu ziren herriko igerilariak, proba guztiak mixtoak izan ziren.

batan, 50m librean Mikel Esnal, 200m tximeletan Haitz Mitxelena herritarra, 50m braza Mikel Soto, 400m estilotan Jon Ibarburo, Iñigo Ibarburu 50m tximeletan eta 400m libre, Haitz Mitxelena 200m braza besteak beste. Bigarren eta hirugarrenak ere izan ziren zenbaitetan.

Buruntzaldea IKTko kideek bazkaria egin zuten egunari amaiera borobila emateko.



Ikusle asko gerturatu zen igerilarietako animoak ematera.

ARETO FUTBOLA.-

Txindoki eta El Punto finalean

Larunbatean jokatu ziren herriko areto futboleko finalurreko neurketak. Itzulerako bi partidak izanda, dagoeneko final handia jokatuko duten taldeak erabaki dira. Txindoki eta El Punto izango dira aurrez-aurre. Iazko irabazleak Izkiñak, ezin izango du titulua errepikatu.

Txindoki eta Insaustiren arteko partida gogorra izan zen, amaierara 2-2ko emaitzarekin iritsi ziren eta penaltietan erabaki behar izan zen irabazlea. Azkenean, Txindoki

kik 3 sartu zituen eta Insaustik bostetik bi sartuta, txapelketa agur esan zion.

Jarraian, El Punto eta Izkiñak taldeen arteko partida jokatu zen. Izkiñak 2-0 irabazi arren, El Punto zuen abantaila joaneko partidatik, 4-1 irabazita, beraz, finalera El Punto pasa zen.

Final handia larunbatean izango da 18:00etan kiroldegian.

Aurretik, 16:00etan, kontsolazio partida jokatuko dute Trumoi eta Indauxek.



Penaltietan galduta, Txindokik eskuratu zuen finalerako lehen txartela.

SQUASH.-

Iñaki Garciarentzat garaipena

Kiroldegian Squash Txapelketa Sozialaren finalak jokatu ziren larunbatean.

Lehenengoak indarrak neutretzen, kontsolazioko finalera iritsi ziren jokalariek izan ziren.

Dani Dávilak eta Javier Serranok partida polita eskaini zuten 5-15, 8-15, 12-15eko emaitzarekin garaipena Serranorentzat izan zen azkenean.

3. eta 4. postutarako partidak ere jokatu ziren larunbat arratsaldean, eta 3. postuan geratu zen Iker Cañedo Xabier Amianori 15-12, 15-12, 15-12ko emaitzekin irabazi ostean.

Finala Iñaki Garcia eta Kinin Calvoren arteko partida izan zen.

Bi jokalariek batera dira txapelketa honetan eta ez zen lehenengo aldia finalean topo egiten zutelak.

Ordu bete luzeko partida oso borrokoatua izan zen bi jokalarien aldetik. 15-13,



Partiden ostean sari banaketa gauzatu zen squash pistan bertan.

15-10, eta 16-17ko emaitzak luzapena derrigortu zuen eta azkenean, 17-16ko emaitzekin saria Iñaki Garciarentzat izan zen beste behin.

Iaz garaile suertatu zen Kinin Calvo bigarren postuan utziz. 2013an ere Iñaki Garcia eskuratu zuen garaipurra.

Finalaren amaieran Carlos Altuna Kirol arduradunak banatu zituen txapelketako garaikurrak.

Parte hartzaileak pozik azaltzen ziren egindako lanarekin eta lagun artean, merienda batekin borobildu zuten Squash txapelketa sozialaren XXVII. edizioaren amaiera.

Agenda

Larunbata, 09:00etan Okendo



Lubakira ibilaldia

Txaldatxur mendixkan Isalada Ezkutatuak taldeak aurkitutako lubakira irteera antolatu dute. 1936ko abuztutik aurrera, Buruntza, Agerre Buru, Belkoain eta beste zenbait eremuen antzera, Gipuzkoan eratu ziren borroka gune bilakatu zen. Memoria historikoa berrekuratzeko lanean dagoen herriko taldeak herritarrei paraje hau eta honen historia ezagutzeko aukera eskaini nahi izan du.

Larunbata, 10:30ean
Vespa eta Lambretta motorren erakusketa.

OKENDO PLAZA
Larunbata, 20:00etan
Erketz EDT dantza taldearen San Pedro jaietako ohiko emanaldia izango da.

BASAUNDI PLAZA
igandea, 12:30ean
Vespa eta Lambretta motorren erakusketa.

KIROLDEGIA
Asteartea 23, 18:00etan
Biyak Bat egoitzako kideen soinketa erakustaldia.

OKENDO PLAZA
21:30, San Joan zortzikoa Kale Nagusian eta Soka dantza plazan Erketz EDT, Alboka abesbatza eta Zero Sette akordeoi orkestrarekin.

22:00, San Joan sua piztuko da.

KIROLDEGIA
Asteazkena 24, 10:00etan
Ur festa egingo da 5 eta 12 urte arteko umeentzat. Parte hartzaileek igeri egiten jakin beharko dute.

Usurbil
Musika
FRONTOIA
Osteguna, 17:00etan
'Xilipurdi Gaur Jaia' ikuskizunaz gozatu ahal izango da. Adin guztietako ikusleentzako animaziozko eta musika ikuskizuna da. Jai giroan, musika zuzenean akziozko eta parte-hartze jolasak, lehiaketak, dantzak, pailazokeriak. Noaua! elkarteak antolatuta, doan.

Lasarte-Oria

Dantza

OKENDO PLAZA
Astearte eta ostegun, 20:00etan
Sorgin Dantzako entseguak. Saio irekiak dira. Eguraldi onarekin Okendon egingo dira eta bestela, Garaikoe-txea eraikinean.

Musika

MANUEL LEKUONA
Asteartea eta Asteazkena, 18:00etan
Udal Musika eskolako ikasleek ikas-turte amaierako kontzertuak eskainiko dituzte guraso eta lagunen aurrean.

Jaia

ZABALETA AUZOA
Ostirala, 20:30ean
Haur eta helduekin gamusinoen gaua ospatuko da. Zartagia, goilara eta linterna eramatea gomendatzen da.

Erakusketa

JALGI
3.Batukada Topaketako argazki bilduma. Horien artean, Dinbi Bandak antolatutako argazki lehiaketako lan sarituak ikus daitezke.

San Pedro festen aurrekariak

BIYAK BAT

Astelehenerik ostegunera, 16:00etan
Boyak Baten mahai jolasen txapelketak jokatu dira. Astelehenean seises, asteartean partxisa, asteazkena damak eta ostegunera dominoan jokatu dute.

ISLA PLAZA

Ostirala, 16:00etan
Bote, igela eta toka joko txapelketa jokatu dute Biyak Bat egoitzako kideek.
JAIZKIBEL PLAZA
Ostirala, 19:00etan
Vespa eta Lambretta motorren erakusketa.

OKENDO PLAZA

Herritarren txokoa

Galdutako txaketa

Ostegunera Sorgin dantzako entsegua amaitu ostean, DOMYOS markako txaketa txuri bat agertu zen Okendo plazan. Txaketa tamaina ertainekoa da eta marra grisa du aurrealdean. Jabea Ttakun kultur elkartera hurbildu behar da bulego ordutegian hau eskuratzeko.

Lasartetik Esloveniara!!

Lasarte taldea, aurten ere, udako bidaiak prestatzen ari da. Bisitatuko dituren lekuak: Bled, Maribor, Ljubljana, Postjonako kobazuloak, Istria... Interesa duzuenok deitu telefono honetara: 661 41 78 53 Plaza mugatuak.

Oriatarren bazkaria

Karmengo Amaren egunean, uztaillaren 16an, Oriatarren bazkaria antolatu dute El Jardin jatetxean. Aurten Karmengo Amaren kaperaren 75. urteurrena ospatuko dute eta On

Ramon Uribetxerria apaizari omaldi txikia egingo zaio urte hauetan egindako zerbitzuarengatik. Bazkariak gozatu nahi duten herritarrek jate-txean bertan eman behar dute izena. Menua 30 euro dira eta haurrentzako bi menu daude, bata 8 eurokoa eta bestea 12 eurokoa.

Santa Ana pintxoa

Aterpeak Santa Ana egunean, uztaillak 26, Santa Ana pintxoa egitasmoa antolatu nahi du iaz bezala. Honetan parte hartu nahi duten tabernekin harremanetan jarri beharko dute Aterpeako kideekin 637 95 50 30 telefonoan edota itziarirurzun@hotmail.com bidez.

Sorgin dantza zapia


Sorgin dantzako zapiak salgai izango dira entseguetan, Jalgin edota Ttakunen. Kotoizko zapiak 9 euroko prezioan, akrilikoak 4 eurotan.

Hemeroteka

Duela 1171 ale

1997ko ekainaren 13ko zenbakian Soka dantzaren inguruan elkarrizketatzen zuen TXINTXARRIK Nekane Lartzabal Erketzeko kidea.

Berak soka dantzaren nondik-norakoak azaltzeaz gain, honen garrantzia azpimarratzen zuen. "Korapiloa aurrean eta atzean egiten da. Tradizioaren arabera, aurrean doan pertsona herriak errespetatu handienean duen gizona da, alkatea esaterako. Atzean berriz, gaztea, herriak aukeratu duena, alkatearen hurrengoa nolabait". Tradizioari dagokionez, "Lasarte-Oriak ez du artxiborik. Gertuena Hernanikoa da. Ziurrenik dantzatuko zen, herri guztietan dantzatu den bezala. Dena den, dantza zereemoniala Hernanin egingo zuten, San Joanetan". Erketzeko tradizio honi jarraipena ematearen garrantzia gogoratzen du urterekin dagoeneko entseguak egiten dabil.



Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko:
Geltoki kalea, 4 943 366858 txintzarri@txintzarri.info



Rocioko Ama Birjinari eskainitako meza egin zuten Semblanteko kideek, honetan abestiak eta sevillanak eskaini zituzten, ondoren erromerian Zumaburutik Atsobakarrera abiatu ziren Ama Birjina hartuta.

Rocioko erromeria koloretsua

Eguraldi txarrari aurre eginez, andaluziar giroa nagusitu zen Atsobakarren

Semblante Andaluz elkarteko kideek urteroko ohiturari jarriki, Rocioko Ama Birjinaren omenezko erromeria asteburua egin dute. Eguraldi kaxkarrak hainbat emanaldi zapuztu zituen arren, igandean egitarauko ekintza gehienak egin ahal izan zituzten. Agintarien brindisean egon ziren lehenengoz udal berriko ordezkariak.

Honetan larunbatean osatutako udaleko ordezkariak parte hartu zuten lehenengoz. Tartean, Jesus Zaballos alkate berria izan zen.

Batzuek dantza ere egin zuten bazkaldu aurretik.

Arratsaldean berri eta ekaitzei aurre eginez, Semblante Andaluzeko talde ezberdinek emanaldia eskaini zuten.

Oholtzara igo ziren ere herrira gonbidatutako beste

Andaluziar etxeetako taldeak. Amigos del Sur taldearen emanaldia egin zen jarraian eta jaiari amaiera emateko, Ama Birjina agurtzeko salvea abestu zuten bertaratutako guztiek.

TXINTXARRI

Rocioko Ama Birginaren omenezko erromeria-rakoa hainbat ekintza prestatu zituzten Semblante Andaluz elkarteko kideek.

Larunbateko eguraldi txarrak ordea, festa apur bat zapuztu zuen eta ezin izan zen Atsobakarreko parkean jaia nagusitu. Hainbat ekintza bertan behera utzi ziren.

Igande goizean ordea, giroa bestelakoa izan zen eta Arantzazuko Amaren parrokiaren egindako meza alaiarekin hasiera eman zioten egunari Semblanteko kide eta lagunek.

Bertan Semblanteko talde ezberdinek parte hartu

zuten, abestiak eta dantzak ama birjinari eskainiz. Hermandadeko kide berriei ongietorria eman zitzairen ere, bedeinkatutako Ama birjinaren oroigarria jarri.

Meza berezia bukatuta, ama birgina hartu eta Atsobakarrera abiatu ziren prozesioan. Lehenengoz Loreak-eko zaldiek parte hartu zuten honetan eta Azpeititik ekarritako zaldi gurdiak ikusi ahal izan ziren.

Ohi bezala soineko eta jantzi koloretsuak izan ziren nagusi erromerian. Atsobakarrera iritsita, festari hasiera eman zioten.

Bazkari herrikoiarekin hasi aurretik eta musikak giroa, agintarien brindisa izan zen.



Jose Mari Mellado Semblanteko lehendakariarekin udal ordezkarien brindisa.



Jai giroak igande arratsaldeko ekaitzei aurre egin zien.

UDA HONETAN ZATOZ ZEN EGITERA

eta nuke, baleki, zenekien...

*zitzaion
dezakezu
litzaidake*

*genekien
zetorren
naitzke*

AURKI EZAZU
ZURE BARNEKO OREKA,
EUSKARAREN BIDEZ

eman izena
Gipuzkoako euskaltegietan